



<b>adabatu</b> 'txaplataz betea, adabaki askokoa'	«Eta ilara horren amaieran, noizbait baserria izandako eraikin kedartu eta <b>adabatua</b> ageri zen.»	(46)
<b>aditu</b> 'entzun / ulertu'	«Lehen pisuko leihoa ireki zen lipar batez, eta aurpegirik ikusi ez, baina <b>aditu</b> bai aditu zela atso baten ahots desatsegina...»	(46)
<b>ahitu</b> 'agortua, ezindua'	«Esne-saltzailea lurrerantz makurtu zen, gerri <b>ahituak</b> baimentzen zion neurrian...»	(145)
<b>albait -en</b> 'ahalik eta -en, ahal den eta...'	« <b>Albait</b> bizkorren igo zituen berak ere eskaileak, gorputzeko gantz kiloek baimentzen zioten neurrian.»	(124)
<b>aldapa</b> 'aldatsa'	«Gizon bi oinez zihoazen <b>aldapa</b> itzeleko errepedean gora.»	(33)
<b>arraildu</b> 'arrakalatu, pitzatu, artesitu'	«...zutik kokatzea, trenbidea mugatzen zuen petril <b>arrailduaren</b> gainean, bizkar emanez errepedeari.»	(129)
<b>arranopola!</b> 'ospera!'	«— <b>Arranopola!</b> –bota zuen detektibeak—. Emango nuke hemen dagoela gure argibidearen funtsa...»	(35)
<b>arrastiri</b> 'arratsaldea'	«...begiratoki zabalak eskaintzen zuen ikuspegiari so, <b>arrastiriko</b> azken argia aprobetxatuz.»	(79)
<b>artean</b> 'oraindik' (irag.)	«Porra erakutsi zion zaindariak Etxeberi, eta beronek protesta egin zuen, <b>artean</b> guztiz esnatu barik...»	(39)
<b>ataka</b> 'irekidura, aireztatzekoa'	«...ate nahiz leihoak itxita zeuden, eta horma nagusiaren goialdeko <b>ataka</b> hondatu iluna zen irekigune bakarra, ganbarakoa.»	(34)
<b>barrabil</b> 'potroa, testikulua'	«...gizontzarrak tinko so egiten zien, mihia aterata (...) eskuak tergalazko praka nasaien poltsikoetan sartuta, igurtziak eginez <b>barrabil</b> inguruan.»	(21)
<b>begitarte</b> 'aurpegiera, keinua'	«—Gabon –bota zuen Artabek, begiratzen zieten gazte bermuda eta tupedunen burlazko <b>begitarteei</b> garrantzirik eman gabe.»	(88)
<b>berbakera</b> 'hizkera, berba modua'	«...harira etorri zen andrea, jario urri eta zuzeneko <b>berbakera</b> berreskuratuz.»	(136)
<b>berriketan jardun</b> 'berba eta berba ekin'	«Bizpahiru agure-atsok ondoko jarlekuetatik begiratzen zioten, eta beste askok <b>berriketan ziharduten</b> ...»	(79)
<b>bestela</b> 'ezpabere'	«—Bost minutu duzue hemendik alde egiteko –entzun zuen, izaturik. <b>Bestela</b> ...»	(39)
<b>bidenabar</b> 'bide batez'	«—Ez kezkatu, Etxebe, hobeto jaitsiko baikara solasean poliki-poliki. <b>Bidenabar</b> esanda –irribarre maltzurra marratzu zen detektibearen ezpainetan...»	(68)
<b>bin laden</b> '500 euroko billetea'	«...esan zuen Artabek, gabardinako poltsikoan zeramatzan Bin Laden biak laztanduz. Egidazu jaramon, Etxebe.»	(28)
<b>biribilgune</b> 'bideko biribila, rotonda'	«—Juanitaren gana ez dugu joko, ala? Badakit zein <b>biribilgunetan</b> egiten duen lan aspaldi honetan.»	(28)
<b>bits</b> 'aparra'	«...erantzun zion zerbitzariak, <b>bitsik</b> gabeko edaria isuriz edalontzietan.»	(58)
<b>buruan</b> 'ondoren, eta gero, garrenean'	«Baina ez zuen luzaro iraun haren nahasteak, minutu <b>biren buruan</b> beste dei bat jaso baitzuen.»	(19)
<b>buruan erabili</b> 'pentsatzen aritu'	«Isilaldia egon zen gero, harik eta Etxebek <b>buruan</b> bueltaka <b>zerabilena</b> aipatzen animatu zen arte.»	(143)
<b>cachet</b> 'artistek... kobratzen dutena'	«Badakizu, hortaz, detektibe pribatu kotizatua naizela, <b>cachet</b> altu samarrekoa...»	(18)
<b>diost</b> 'esaten dit'	«...baina nire senak <b>diost</b> gakoia ez dagoela inguru honetatik urrunegi.»	(73)
<b>egurastu</b> 'aireztatu'	«—A zer gustu txarra! –bota zuen bat-batean detektibeak, atsedean eginez eta jantzita zeraman gabardina pixka bat <b>egurastuz</b> .»	(79)
<b>erabakitsu</b> 'irmo, ziurtasunez'	«Jende mordoa zebilen batetik bestera, eta Peralesek hartu zuen agintea, <b>erabakitsu</b> .»	(51)



<b>eskerga</b> 'handi-handia, itzela'	«Buru <b>eskerga</b> zuen, Etxeberena baino are handiagoa, eta detektibea izutu egin zen...»	(100)
<b>finitu</b> 'akabatu, amaitu'	«Kasu honetako gastuekin <b>finitzean</b> egingo ditugu kontuak. A zer-nolako gizon mesfidatia!»	(34)
<b>funts</b> 'gakoa, muina'	«—Arranopola! —bota zuen detektibeak—. Emango nuke hemen dagoela gure argibidearen <b>funtsa</b> ...»	(35)
<b>gantz</b> 'koipea, okelaren lodia'	«Albait bizkorren igo zituen berak ere eskaileak, gorputzeko <b>gantz</b> kiloeak baimentzen zioten neurrian.»	(124)
<b>garunak zurrupatu</b> 'tenteldu' (comer el tarro)	«—Enpin! Ez dut besterik entzun nahi, argi baitago <b>garunak zurrupatu</b> dizkizutela hauek ere. Agian egunen batean ohartuko zara inbasioaren arriskuez...»	(23)
<b>grinatsu</b> 'pasiozkoa, bizi-bizia'	«Gogoan duzu zelako tertulia literario <b>grinatsuak</b> antolatzen genituen?»	(52)
<b>gurtza-tokia</b> 'zeremonia erlijiosoetarako lekua'	«Eta ermita bera beren <b>gurtza-tokia</b> izango zen antzina, meskita bat edo...»	(110)
<b>halandaze</b> 'hori horrela, hortaz, beraz'	« <b>Halandaze</b> , niretzat beste lantxoren bat badaukazue, Manilako kasuaren antzekoa...»	(30)
<b>hatz-koskor</b> 'atzamarretako juntadurak'	«Zinpeko zaindaria kotxeko atariraino hurbildu eta aurrealdeko kristala jo zuen, <b>hatz-koskorrez</b> lehenik, ukabilaz gero...»	(39)
<b>hur</b> 'fruitu lehorra'	«—OK, baina eramango ditugu <b>hur</b> batzuk biderako?»	(68)
<b>hurritz</b> 'hurak ematen dituen arbola'	« <b>Hurritzez</b> inguratutako zelaitxo baten erdian zegoen, eta menhir itxurako kuartozko zutari bat zuen aldamenean.»	(34)
<b>igel-toka</b> 'txapa biribilak sartzeko jokoak'	«Sarreraren eskuinaldean <b>igel-toka</b> zegoen, egurrezko jarleku hondatu baten ondoan...»	(46)
<b>ikusian ere</b> 'badaezpada zerbait ikusten den'	«Ez da soberan egongo begirada bat botatzea zulotik, zerbait interesgarria <b>ikusian ere</b> .»	(66)
<b>ingurumari</b> 'ingurua, ingurunea'	«Isiltasuna zen nagusi <b>ingurumarian</b> , lantzean behin orro itzelek hondatzen zutena.»	(34)
<b>itxian ere</b> 'badaezpada ixten dituzten'	«...baina gaur lehenbailehen heltzea komeni zaigu, postuak <b>itxian ere</b> .»	(50)
<b>itzal</b> 'ospea, entzutea'	«—Neure sena, Etxebe, neure sena. Horrexegatik naiz hain <b>itzal</b> handiko detektibea.»	(20)
<b>itzaltsu</b> 'ospe handikoa'	«Normala iruditzen al zaizu txakur bati Sabin izena jartzea? Jende <b>itzaltsu</b> asko izan da izen horren jabe...»	(79)
<b>itzel</b> 'eskerga, erraldoia, izugarria'	«Gizon bi oinez zihoazen aldapa <b>itzeleko</b> errepidean gora.»	(33)
<b>jaramon egin</b> 'arreta jarri, kasu egin'	« <b>Egidazu jaramon</b> , Etxebe: sakela diruz beteta dagoelarik, hobe da horrelako emakume puxkengandik urrun mantentzea.»	(28)
<b>jendilaje</b> 'jendaila, jende gaiztoa'	«— <b>Jendilaje</b> horrekin ere hasi zara adiskidetzen, hortaz? Ez dizu lotsarik ematen?»	(23)
<b>kakalardo</b> 'intsektu koleopteroa' (escarabajo)	«—Ez da horren korapilatsua. <b>Kakalardo</b> urdina kutun sakratua zen egiptoarren artean, mundu guztiak dakienez.»	(109)
<b>kedartu</b> 'keak ilundua'	«Eta ilara horren amaieran, noizbait baserria izandako eraikin <b>kedartu</b> eta adabatua ageri zen.»	(46)
<b>kilikadura</b> 'kilimazko ezinegona'	«—Eta? —Etxebek, <b>kilikaduraz</b> .»	(98)
<b>klaskatu</b> 'hots zolia atera' (hatzekin...)	«Peralesek behiei egiten zaienaren antzeko hotsa atera zuen, mihia <b>klaskatuz</b> , eta andreak kezuz itzuli ziren euren txokoetara.»	(57)
<b>kokospeko</b> 'kokotsaren azpia, girgiloa'	«Nork esango zidan niri biboterik gabeko <b>kokospekoa</b> uzteko?»	(17)



<b>korapilatsu</b> 'nahaspilatu, aldrebestua'	«—Ez da horren <b>korapilatsua</b> . Kakalardo urdina kutun sakratua zen egiptoarren artean, mundu guztiak dakienez.»	(109)
<b>korrok egin</b> 'korrokada bota'	«Platera guztiz hustutakoan, Minguez komisariordeak <b>korrok egin</b> zuen, platera zakarrontzira bota...»	(72)
<b>kutun</b> 'paparrean eramateko irudia edo'	«—Ez da horren korapilatsua. Kakalardo urdina <b>kutun</b> sakratua zen egiptoarren artean, mundu guztiak dakienez.»	(109)
<b>kuxkuxean</b> 'ikertu, jakin nahian'	«...horrela egon ziren pixka baten, gainekoa <b>kuxkuxean</b> eta azpikoa zain.»	(66)
<b>lar nabarixak</b> 'nabarmenegiak'	«Baina bota egin ninduten taldetik, ze lar nabarixak ziren nire kolorea eta neurrixa.»	(30)
<b>lausengu</b> 'gehiegizko laudorioa, losintxa'	«—Bueno, bueno, lagunok —moztu zuen Peralesek—, hobe izango da <b>lausengu</b> leloak baztertu eta laurok batera trago bat hartzea, ezta?»	(56)
<b>lauso</b> 'nahasia, difuminatua'	«Itzal <b>lausoak</b> baino ez ziren bereizten farol makal baten argipean...»	(55)
<b>lipar</b> 'unea, momentua'	«Lehen pisuko leihoa ireki zen <b>lipar</b> batez, eta aurpegirik ikusi ez, baina aditu bai aditu zela atso baten ahots desatsegina...»	(46)
<b>litxarrerria</b> 'jateko gauza txikiak eta askotarikoak'	«...tigretoi zuriak dauzkat, gominolatan suge gorriak eta krokodilo berdeak. Gisa horretako <b>litxarrerriak</b> badaude, baina mandeuli urdinik ez da oraindik asmatu.»	(27)
<b>makal</b> 'eskasa, ahula'	«Itzal lausoak baino ez ziren bereizten farol <b>makal</b> baten argipean...»	(55)
<b>mamorro</b> 'kokoa, mamua, bitxoa'	«—Figura bat topatu behar dut, edo harribitxi bat, edo <b>mamorro</b> bat. Nik neuk ere ez dakit oraindik.»	(53)
<b>mandeuli</b> 'zaldietako euli beltz handiak'	«— <b>Mandeuli</b> urdina topatu behar duzu.»	(18)
<b>marmar egin</b> 'erneguka, ahapeka mintzatu'	«...sobrea eskatu zion laguntzaileari. <b>Marmar egin</b> zuen irekita zegoela ikustean.»	(21)
<b>mehar</b> 'argala'	«...zakur beltz sendoa eta kolore bereko arropaz jantzitako andre <b>meharra</b> .»	(70)
<b>memelo</b> 'kokoloa, leloa'	«Ulertzen duzu orain zergatik diren errudunak etorkinak, <b>memelo</b> horrek?»	(41)
<b>muin egin</b> 'musu emateko keinua'	«...txapela burutik kenduz eta andrearen eskuan <b>muin eginez</b> ...»	(56)
<b>nabar</b> 'kolore anitzekoa, nahasia'	«Kate luzeaz lotutako txakur <b>nabarrak</b> zoro baten pare egin zien zaunka kanpotarrei, baina andrearen "tomaki!" oihu hutsa nahikoa izan zen...»	(106)
<b>nasai</b> 'arropa zabala, estua ez dena'	«...gizontzarrak tinko so egiten zien, mihia aterata, gorputza geldu, eskuak tergalazko praka <b>nasaien</b> poltsikoetan sartuta, igurtziak eginez barrabil inguruan.»	(21)
<b>nasai</b> 'zabala, estua ez dena'	«Silueta bat atera zen bizkor lokalaren sarreratik, zira <b>nasai</b> batez babestuta.»	(62)
<b>ostendu</b> 'ezkutatu'	«...Abrisketaraino iritsi nintzen, Mandeuli Urdina eta nekropoli galdua bertan <b>ostendurik</b> zeudelakoan.»	(134)
<b>osteratxo bat</b> 'bueltatxo bat, paseotxo bat'	«...ea errekor berria lortzen dudana, eta gero agian <b>osteratxo bat</b> egingo dut handik.»	(93)
<b>paratu</b> 'jarri'	«Ikertzaileak, bakarrik zeudela iritizita, eraikinari begira <b>paratu</b> ziren...»	(34)
<b>patxadaz</b> 'astiro, emekiro'	«Esango dizut zer egingo dugun: zaindari zakar horri gure egoeraren berri emango diogu, <b>patxadaz</b> ...»	(41)
<b>pekatsu</b> 'pekaz bete'	«...garagardo-edaleen tripaduna, ile eta begi argikoa, azal zurbil eta <b>pekatsukoa</b> ...»	(47)
<b>pertxenta</b> 'liraina, eder-ederra, deigarria'	«...aitortu behar dut, urteen igarotzea gorabehera, lehen bezain <b>pertxenta</b> ageri zarela.»	(56)



<b>petril</b> 'bide bazterreko hesia, babesa'	«...zutik kokatzea, trenbidea mugatzen zuen <b>petril</b> arrailduaren gainean, bizkar emanez errepideari.» (129)
<b>pizgailu</b> 'metxeroa'	«—Mmmmm... –esan zuen Simonek—. Lehenengoa lehenengo. Baduzu <b>pizgailurik?</b> » (22)
<b>poliki-poliki</b> 'astiro-astiro, emeki-emeki'	«—Ez kezkatu, Etxebe, hobeto jaitsiko baikara solasean <b>poliki-poliki</b> . Bidenabar esanda –irribarre maltzurra marraztu zen detektibearen ezpainetan...» (68)
<b>prefosta</b> 'noski, jakina'	«— <b>Prefosta</b> , Etxebe, prefosta –tiranteen atzean sartu zituen atzamar lodiak detektibeak, zintzo aurpegia ipiniz...» (23)
<b>purrustaka</b> 'protestaka, amorruz'	«Detektibeak <b>purrustaka</b> luzatu zion bosteko billetea saltzaileari...» (26)
<b>puxka</b> 'itzela, ikusgarria'	«Egidazu jaramon, Etxebe: sakela diruz beteta dagoelarik, hobe da horrelako emakume <b>puxkengandik</b> urrun mantentzea.» (28)
<b>sakela</b> 'poltsikoa, patrika'	«Egidazu jaramon, Etxebe: <b>sakela</b> diruz beteta dagoelarik, hobe da horrelako emakume puxkengandik urrun mantentzea.» (28)
<b>sená</b> 'instintoa'	«—Neure <b>sená</b> , Etxebe, neure sena. Horrexegatik naiz hain itzal handiko detektibea.» (20)
<b>talaian jarri</b> 'adi jarri, erne'	«—Aizu, nagusi, ez duzu txakur baten marmarra entzun? Artabe <b>talaian jarri</b> zen une batez...» (37)
<b>tomaki</b> 'txakurrei, alde egiteko adierazteko'	«Kate luzeaz lotutako txakur nabarrak zoro baten pare egin zien zaunka kanpotarrei, baina andrearen " <b>tomaki!</b> " oihu hutsa nahikoa izan zen...» (106)
<b>trufa</b> 'iseka, burla'	«Peralesek <b>trufazko</b> begirada zuzendu zion Etxeberi. Beronek mesfidati egin zion so hari.» (49)
<b>tu egin</b> 'txistua edo listua bota'	«—Zergatik? – <b>tu eginez</b> hagin artetik ateratako janari hondakin txiki bat botatzeko.» (73)
<b>tupedun</b> 'bekoki gaineko ile sorta'	«—Gabon –bota zuen Artabek, begiratzen zieten gazte bermuda eta <b>tupedunen</b> burlazko begitarteei garrantzirik eman gabe.» (88)
<b>txortan aritu</b> 'larrutan, amodioa egiten'	«Izan ere, bere belaun baten gainean euli bi <b>txortan ari</b> ziren, eta gizontzarrak tinko so egiten zien, mihia aterata...» (21)
<b>xaboia eman</b> 'gantza eman, losintxatan aritu'	«—Utzi <b>xaboia emateari</b> , berdín kobratuko baituzu, eta esadazu zer dakizun Mandaegli Urdinari buruz.» (25)
<b>xaxatu</b> 'zirikatu, zeozer egitera bultzatu'	«Animaliak <b>xaxatu</b> zituzten borrokarako, eta halako baten arduradunak hasteko agindua eman zuen.» (84)
<b>xuxurlatu</b> 'ahapeka, isilka hitz egin'	«—Begiak zabal-zabalik izango ditut aurrerantzean – <b>xuxurlatu</b> zuen itsuak, eta ozenki mintzatuz jarraitu zuen...» (26)
<b>zakar</b> 'latza, gogorra'	«Esango dizut zer egingo dugun: zaindari <b>zakar</b> horri gure egoeraren berri emango diogu, patxadaz...» (41)
<b>zantzu</b> 'arrastoa, izpia'	«Ermita inguru guztian ikus zitezkeen horren <b>zantzuak</b> , belar hasiberriaz estaltzen ari ziren lur biguneko guneak...» (104)
<b>zereko</b> (esanahi zehatz bakoa, ordezkoa)	«—Nik uste ehuneko batekin egingo duzula, mutiko txintxoá bazara? —Ehun <b>zereko</b> batekin?» (58)
<b>zin egin</b> 'prometitu, agindu'	«—Bortxatu egin nau, maitea, <b>zin degizut</b> –desenkusatu zen andrea.» (125)
<b>zira</b> 'euritarako jantzi iragazkaitza'	«Silueta bat atera zen bizkor lokalaren sarreratik, <b>zira</b> nasai batez babestuta.» (62)
<b>zizpuru egin</b> 'putz egin'	«Emakume haietako batek <b>zizpuru egin</b> zuen, beste batek zeozer xuxurlatu desgogara...» (121)
<b>zizt egin</b> 'ziztatu, eztenkada sartu'	«...esadazu zer dakizun Mandaegli Urdinari buruz. — <b>Zizt eginez</b> gero gorriak ikusten direla, eta beltzak direla, ez urdinak.» (26)
<b>zutarri</b> 'harkaitza'	«Hurritzez inguratutako zelaitxo baten erdian zegoen, eta menhir itxurako kuartozko <b>zutarri</b> bat zuen aldamenean.» (34)